



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Musikene Orkestra Sinfonikoak eta Donostiako Orfeoiak euren indarrak batuko dituzte Arriagako agertokian, Cherubiniren *Requiem*-a interpretatzeko

- Igandean, maiatzaren 13an, 19:00etan izango den emanaldia, Musikenen prestatu den Yana Kucherova errusiar gazteak joko duen Béla Bartóken *Biolarako eta Orkestrarako kontzertuarekin* hasiko da.
- Víctor Pablo Pérez maisua da orkestraren energia abesbatzaren ahots edertasunarekin uztartzen duen proiektuaren burua.

**Bilbon, 2018ko maiatzaren 10ean.**- Euskadiko Goi Musika Ikastetxeak, Musikene, bat egingo du berriro **Donostiako Orfeoiarekin**, Luigi Cherubiniren (1760-1842) lau ahotseko abesbatza mistorako eta orkestrarako *Réquiem*-a aurkezteko, hildakoan aldeko meza berezientakoa, ez baitu abeslari bakarlaririk. **Víctor Pablo Pérez** maisua da **Musikene Orkestra Sinfonikoaren** energia abesbatzaren esperientziarekin uztartzen duen proiektuaren burua, Madrilgo Erkidegoko Orkestraren eta Abesbatzaren zuzendari titular eta artistikoa, eta Donostiako Orfeoiarekin lotura handia duena. Ikus-entzuleek igande honetan, maiatzaren 13an, 19:00etatik aurrera, gozatu ahal izango dute musika emanaldi bikain honetaz Arriaga Antzokian.

Cherubini Parisen egin zuen bere ibilbide profesionalaren parte nagusia, Frantziako Gortearen Musikari ofizial gisa, eta 1816an *Réquiem do minorrean* lana idatzi zuen, Frantziako Iraultzan burua moztu zioten Luis XVI gogoraraziz. Lanak itxura orokor iluna erakusten duen arren, oso egokia hiletarako, tragedia, beldurra eta ezustea erakusten duten musika uneak une hunkigarriagoekin uztartzea lortzen du. *Introitus*-aren hasierak hildakoaren betiko atsedenen alde egiten du otoitz, eta gogoetarako *Graduale*-uneari eta *Dies Irae*-ri bidea ematen die. Mugimendu hori parentesia da, eta hainbat atmosfera girotzen ditu, tonalitate eta *tempi* aldaketan bitartez. Ondoren, *Offertorium*-ean tentsioak gora egiten du, koleraz betetako *Sanctus*-era heldu arte. Horren ostean, Cherubini *Pie Jesu*-ren lasaitasunera itzultzen da, *Agnus Dei*-ren amaiera handi eta solemnera eramaten duten balio geldo eta luzeen bitartez.

### **Béla Bartók hasteko**

Musika emanaldia Béla Bartóken (1881 – 1945) *Biolarako eta Orkestrarako kontzertuarekin* hasiko da, eta bertan, Musikenen prestatu den **Yana Kucherova** errusiar gaztea arituko da. Bartók Estatu Batuetan erbesteratuta egon zenean hasi zen kontzertu horretan lanean. Hala ere, zuen leuzemia zela eta, amaitu aurretik hil zen. Azkenean, 1949an, bere ikasle onenetakoa izan zen Tibor Serlyk amaitu eta zuzendu zuen bertsioa estreinatu zen, kontzertuaren agindua bere gain hartu zuen William Primrosek interpretatua. Kontzertuak erakusten duen lengoaiaren tonuan bakardadea

eta malenkonia dira nagusi, bere bizia amaitzen ari zela jakinda konposatzailearengan nagusi ziren sentimenduak, hain zuen ere.

### **SARRERAK ARRIAGA ANTZOKIA**

- 10,50 eta 35 euro artean
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

### **EGITARAUA:**

- *Biolarako kontzertua (20')* - Béla Bartók  
Musikene Orkestra Sinfonikoa  
Yana Kucherova, biola

- *Réquiem (47')* - Luigi Cherubini  
Musikene Orkestra Sinfonikoa  
Donostiako Orfeoia

Zuzendaria: Víctor Pablo Pérez

Informazio gehiago:  
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)